

OIARTZUN / Ikasleentzako gela zabalik dago Bibliotekan

Astelehenetik igandera erabil daiteke, hilaren 31ra arte; udalak ikasleen iritzia kontuan hartu du

Hilaren 31ra arte, eta astelehenetik igandera, Manuel Lekuona Bibliotekako ikasle gela irekita egongo dela jakinarazi du Oiartzungo Udalak. Hartara, ikasleek egunero erabili ahal izango dute azpiegitura ikasketa lanetarako, 09:00etatik 22:00etara.

Erabiltzaileek liburutegira sartzeko azpiegituraren atzeko atea zabalik izango dute ordutegi horretan. Hala, unibertsitateko azterketa gehienak bukatzen diren arte erabili ahal izango dute ikasleek zerbitzu berezia, abenduaren 31ra arte, alegia.

Hirugarrenez jarri dute ikasle gelaren egitasmoa abian Oiartzunen. Izan ere, udalaren iritziz aurreko bi aldietan ikasleek zerbitzuaren "erabilera egokia" egin dute, eta horiek egin dituzten eskaerak kontuan hartu dituzte abenduan ere ekimenari eusteko. Udalaren arabera, "zerbitzua hobetzeko erabaki da Biblioteka egunero irekitzea".